

2012. URTEKO KARMENGO JAIETAKO AZOKAKO KALEZ KALEKO SALMENTARAKO SALTOKIAK OKUPATZEKO BAIMENAK ARAUTZEN DITUZTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA.

1.- BAIMENAREN XEDEA

a).- Hauxe da baldintza-agiri honen xedea: 2012. urteko Karmengo jaietako azokako kalez kaleko salmentarako saltokiak, udalerriko jabari publikoan egongo direnak, okupatzeko baimena arautzea.

b).- Udalak du lekuaren jabetza eskusiboa, eta behin esleipendunari baimena emanda, erabat debekatuta dago baimen hori besterentzea. Arau hori bete ezean, instalazioa itxiko da, eta araua hautsi duen esleipendunari baimena iraungiaraziko zaio. Arauak hautsiz gero, ezin izango da baimena jasotzeko hurrengo deialdietan parte hartu; eta nolana ere, beharreko zehapenak ezarriko dira, indarreko araudiarekin bat.

c).- Lurzorua okupatzeko baimena aldi baterakoa da, eta baimenak ez du lurzorua gainera eskubiderik ematen datozen edizioetarako.

2.- LEGITIMAZIOA ETA BALDINTZAK

Saltzaile, artisau eta legez eraturako pertsona juridiko guztiek eskatu ahal izango dute baimena, baldin eta jarduteko gaitasuna eta gaitasun juridiko osoak badituzte. Horrez gain, baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Adinez nagusi izan behar dute; edo eskatzailea lan egiteko adinduna izanez gero, onartuko da.

2. Legeak ezarritako ezintasun edo ezgaitasun kasuren batean sartuta ez egotea.

3. Ekonomi Jardueraren gainera Zergaren epigrafe egokietan izena emanda egon behar dute, eta zergaren ordainketak eguneratuta egon behar du.

4. Gizarte Segurantzaren erregimen egokian izena emanda egon behar dute, eta kuotaren ordainketak eguneratuta egon behar du. Pertsona juridikoen kasuan, Gizarte Segurantzaren enpresa gisa izena emanda egon behar dute, haien langileek afiliatuak izan behar dute, eta kuoten ordainketak eguneratuta egon behar du.

5. Merkataritza-produktuei eta instalazioei buruzko arauetan ezarritako higiena- eta osasun-baldintzak eta bestelako guztiak bete behar dituzte.

6. Udalaren baimena eduki behar dute.

7. Tasa egokiak ordaindu behar dituzte.

8. Atzerritarren kasuan, egoitza- eta lan-baimen egokiak lortu izana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar dute, edo bertan bizi izateko eta lan egiteko gaitasuna ematen dien beste dokumentazioen bat.

9. Jarduera egiteagatik sortzen den arriskua barne hartzen duen erantzukizun zibileko aseguruia izan behar dute.

Nolanahi ere, zerga-araudian, Gizarte Segurantzaren araudian, baliokideak diren Europar Batasuneko estatu-kideetako araudietan eta aplikatu beharreko guztietan ezarritakoa bete beharko da.

Baimena indarrean dagoen bitartean betekizun haietako bat galtzen bada, baimena kenduko da.

3.- PREZIOAK:

Titular bakoitzak honako zenbateko hauek ordaindu behar izango ditu:

- Instalazioa alokatzeko eskubideak: 442,50 euro.
- Lurzorua okupatzeagatiko tasak: 97,50 euro.
- Energia-horniduragatiko eta mantentze-lanengatiko eskubideak: 27,00 euro

4.- BAIMENAREN IRAUNALDIA

Okupazioak 2011ko Karmengo Jaiak ospatzeko egunek dirauten bitartean iraungo du, bai eta beste bi egun gehiago ere: batetik, aurreko eguna, saltokiak muntatzeko; eta, bestetik, jaiak bukatu ondorengo eguna, saltokiak desmuntatzeko. Baimena eskusiboki emango da 2011ko uztailaren 8tik 17ra bitartean jarduera ustiatzeko, eta ezin izango da luzatu.

5.- AZOKA ANTOLATZEA

Santurtziko Udalak du azoka antolatzeko eskumena, eta Obra eta Zerbitzuen Saileko zinegotziari eskuordetuko dizkio lekuak esleitzeari, antolatzeari eta banatzeari lotutako eskumenak, baita azokaren antolaketari dagozkion eskumen guztiak ere.

6.- ESKABIDEA

a).- Saltokiak okupatzeko baimenaren eskatzaileek saltoki bakoitzeko eskabide-orri bat bete beharko dute, eta Udaleko Erregistro Orokorrean –Cristobal Murrieta etorbideko 6 zenbakian– aurkeztu. Horrez gain, eskabidea aurkeztu ahal dute Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 16ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan aurreikusi diren beste modu guztietan. Eskatzailearen eta kasuan kasuko pertsona baimenduaren honako datu hauek zehaztu beharko dira eskabidean: NAN edo AIZ edo IFK zenbakia; izena edo sozietatearen izena, abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta salgai jarriko den produktuari buruzko beste datu batzuk.

b).- Honako dokumentu hauek edo berorien kopiak erantsi beharko zaizkio eskabideari:

1. Eskatzailearen NAN, AIZ edo IFK agiriaren kopia; nor bere konturako laneko baimena, eta atzerritarra bada, egoitza-baimena, edo bertan bizi izateko eta lan egiteko gaitasuna ematen dion beste dokumentazioren bat.
2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren altaren fotokopia eta azkeneko ordainagiriarena, hala behar izanez gero.

3. Pertsona juridikoa bada, enpresaren eraketa agiria, Merkataritzako Erregistroan behar bezala inskribatua, hala behar izanez gero. Era berean, ordezkaritza egiaztatu beharko da zuzenbidearen aldetik indarra duen edozein baliabidez, edota eskatzaileak berak aitortpena eginez.
4. Janari-edarien kasuan, janari-erabiltzailearen txartela edo indarreko araudiak eskatzen duen titulazio-baliokidea izan beharko da.
5. Jarduera horretako inor enplegaturik edukiz gero, lan-harremana egiaztatzen duten agiriak.
6. Eskatzailearen eta baimenduaren nortasun agiriaren neurriko bi argazki, hala behar izanez gero.

Pertsona bat baimendutako ordezeko izendatuz gero, eskatzaileak arestian aipatu diren agiriei honako hauek erantsiko dizkie:

1. Lan-harremana edo familia-harremana egiaztatzeko agiriak, eta kasu honetan, Gizarte Segurantzako alta eta kotizazioen azkeneko ordainagiria.
2. Izendutako ordezekoaren datu baimenduak: Izen-abizenak, helbidea eta telefono-zenbakia.
3. NAN edo AIZ agiriaren fotokopia.

d).- Aurkeztutako dokumenturen bat faltsua izanez gero, jarduera itxiko da, eta nolana ere, beharreko legezko akzioak abian jarriko dira.

7.- ESKABIDEA NOIZ AURKEZTU

a).- Eskabideak, behar bezala beteta, 2012ko maiatzaren 2tik 31ra bitarteko epean aurkeztu beharko dira.

Eskabideei erantsiko zaizkie 6. baldintzan eskatzen diren dokumentu guztiak.

b).- Eskabideak epez kanpo aurkeztuz gero, ez dira inola ere onartuko.

c).- Eskabideetan datu batzuk falta badira edo akatsak badaude, telefonoz jakinaraziko zaie interesdunei, eskabidea zuzen dezaten. Eskabidea zuzentzeko gehienezko epea 2012ko ekainaren 18an bukatuko da. Eskabidean emandako telefono-zenbakian erantzungo zaie kontsultei bulegoko ordutegian (8:30etik 14:30era).

8.- BAIMENA EBAZTEA

Saltokiak okupatzeko baimena emango da eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera. Eskabideak 7. baldintzan ezarritako epean aurkeztu behar dira.

Ebazpenak arrazoitua izan behar du, eta bermatutzat joko du Baldintza Agiri honetan zehaztu diren baldintzak beteko direla. Erabakia hartzeko, interes publikoa hartuko dute oinarri, eta interes hori honako irizpide hauen bitartez ordezkaturiko da, besteak beste, eta adierazita dauden hurrenkeran: artisau-produktuen salmenta, produktu berriak, produktuak ez errepikatzea, edo jardueraren eta interes publikoaren onurako den beste edozein irizpide, behar bezalako arrazoitua badago.

9.- SALTOKIAK OKUPATZEKO BAIMENA JAKINARAZTEA

a).- Behin eskabideak aukeratuta, Udalak eskatzaileei emango die baimenaren berri, eta halaber jakinaraziko die zenbat eta nola ordaindu behar duten.

Baimenean zehaztu beharko da zein den azoka-esparruan okupatzeko saltokia.

- b).- Okupatzeko baimena behin-behinekoa izango da, harik eta dagokion udal tasa ordaindu arte. Ordainketa azoka hasi baino lehen egin behar da.
- c).- Tasak ordaintzean behin-behinekoa zen baimen hori behin-betikotzat joko da.

10.- MUNTATZEKO BAIMENA

Obra eta Zerbitzuen Sailak, tasak ordaindu direla egiaztatutakoan, identifikazio-txartel bat igorriko du, eta bertan saltokiko datu guztiak adieraziko dira. Esleipendunak Udalean hartu ahal izango du.

Txartel horrek beti ikusgai egon beharko du instalatutako saltokian. Esleitutako lekua finkoa eta aldaezina da; horregatik, debekatuta dago lekuz aldatzea, Santurtziko Udalak horretarako baimena eman ez badu.

11.- KALEZ KALEKO SALTZAILEEN BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

Udalak saltokia azokan instalatzeko baimena emandakoan, esleipendunak honako betebeharrak hauek izango ditu:

- Udalak igorritako baimena azokaren antolatzaileei edota udal agintariei erakusteko.
- Oinarrietan eskatzen diren agiri guztiak eskuragarri izateko, langile baimenduek edonoiz egiazta ditzaten.
- Azokaren antolatzaileen esanak eta argibideak betetzeko.
- Azoka inauguratzen den egunean, saltzekoak diren produktuak ikusgai izateko, bai eta baimenaren iraunaldiaren beste egun guztietan ere.
- Udalak emandako arauak eta baldintza-agiri honetan ezarritakoa betetzeko.
- Indarrean dauden lan-arauak betetzeko (Gizarte Segurantzari buruzkoak, langileak kontratatzeari buruzkoak...).
- Segurtasun-, eta higiene-arauak betetzeko.
- Saltokia zertarako baimendu duen, horretarako erabiltzeko.
- Instalazioak pertsona guztiei, inolako diskriminaziorik gabe, erabiltzen uzteko.

12.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Arau hauetan adierazitako betebeharrak ez betetzea arau-haustetzat hartuko da. Obra eta Zerbitzuen Saileko zinegotzi eskuordedunak, espediente egin ondoren, emandako baimena baliogabetu eta saltokiak zigilatu ahal izango ditu. Horrela, saltzaileei galaraziko die saltokia erabiltzea, harik eta edozein motatako arazoak konpondu arte; edo betiko, baldin eta baldintza-agiri honetan ezarri diren arauak hautsi badira.

13.- BAIMENA IRAUNGITZEA

Baimena iraungiko da honako arrazoi hauengatik: 4. baldintzan adierazitako epea bukatu baita; baldintza teknikoak, agiri honetan ezarritako arauak edota organo-eskudunak emandako beste arau batzuk hautsi baitira, edo jarduera erabiltzaileentzat edo oinezkoentzat arriskutsua baita.

14.- BALDINTZA ETA DEBEKU BEREZIAK

- a).- Debebatuta dago saltokiak instalatzea, baldin eta saltokien jarduerak osasun publikoan arriskua eragiten badu, zarata kirrinkariak sortzen baditu, edo egiten diren ekintzak indarreko araudiaren aurkakoak badira.
- b).- Debebatuta dago baimendutako jardueraren kokalekua aldatzea.
- c).- Debebatuta dago lehergai, arma eta armari-simulagailuen salmenta